

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko irailaren 21a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • Gaur hasi eta igandea arte, San Fermin Txikito jaietan izango da Alde Zaharra

Asun Arribillaga • «Plazaola partzuergoan Donostia eta Iruñea lotu nahi ditugu»

Uztaren ondoko sua

Uzta bildu eta gero soroetan gelditzen den lastoarekin zer egin pentsatu behar dute nekazariak. Batzuek lastoa lurperatzen dute, eta lurriari materia organikoa eman. Beste batzuek, lastoa bildu eta Zangozako biomasa zentralari saltzen diote, elektrizitatea egin dezaten. Baina askok eta askok uztondoa, uztaren ondokoa, erretzen segitzen dute. Lastoa desagerrarazteko bide lasterra da, baina baita suteak eragiteko modu eraginkorra ere. Uztaren ondoko suak, su gehiago. Uztondoak erretzeak Nafarroako suteen %60 sortarazten ditu.



• JOXE LACALLE



• JOXE LACALLE

Bera •

Ertzeko leihoa

Sei artistak musika eta artea uztartuko dituzte gaur arratseko emanaldian

HERRIKO ETXEA EGUN BATEZ arte galeria bihurtuko dugu», esan du Xabier Erkizia, egitasmo honen bultzatzaile nagusi eta bertan parte hartuko duten artistetako batek. Herriko Etxea argazkiz jantzita egonen da, diapositiba bidez emanak edota paperean. Guztiak ere estenoipeka teknikaren bidez ateratakoak izanen dira. Euren sortutako argazki kamerekin egindako argazkiak dira erakusgai paratuko dituztenak Asier Gogortza beratarrek eta Jorge Llorella Bartzelonako gazteak. Elkarrekin bertze proiektu bat prestatzen ari dira, eta horren barrenean kokatu behar da lan hau ere. Argazkiak eskailerekin zein pleno aretoan ikusi ahal izanen dira, eta baita Herriko Etxeko arkupeetan egonen den autoan ere. Jorge Llorellak Bartzelonatik Berarako bidean egindako argazkiak erakutsiko ditu bertan.

Hori guztia girotzeko Xabier Erkizia eta Mikel Etxegarai musikari beratarrek (Gutariko Bat eta Voodoo Muzak taldeetan aritutakoak, bertzeak bertze) musika paratuko dute. Landa lana egin dute bi musikari hauek, eta kanpoan, naturaren erdian, grabatutako soinuekin girotuko dute. Musika esperimentalaren egiten dute biek ala biek.

Ricardo Vicente bartzelonarrak testuak idatzi ditu argazkietan oinarriturik, eta horiek ere irakurri ahal izanen dira, guztia ere Herriko Etxeak eskaintzen duen arkitektura lekuko dela.

Herriko Etxeko ganberak, antzina bezala, kontzertu bat aterpetuko du emanaldiaren barrenean, gaur gauean, 22:00etan. Francisco Lopez musikari ma-

Sei artistaren lanak elkarrekin ikusi ahal izanen dira gaur eta bihar Berako Herriko Etxean egingen den musika eta argazkilaritza instalazioan. Hainbat arte adierazpenen bilgune izanen da gaueko 21:00etan hasiko den emanaldia.



ertz leihoa
Argazki eta musika instalazioa

Irailak 21 eta 22
BERAKO Udaletxean
Nafarroa

Irekiera: 21etan
kontzertua (ortziralean): 22etan

Francisco Lopez
Asier Gogortza
Jorge Llorella
Xabier Erkizia
Mikel Etxegarai

Instalación de fotografía y sonido
ertz leihoa

21 y 22 de Septiembre
Ayuntamiento de BERA

Apertura: 21,00
Concierto (viernes): 22,00

Francisco Lopez
Asier Gogortza
Jorge Llorella
Xabier Erkizia
Mikel Etxegarai

Bera Udaletxea Bera Kultur Batzordea ERTZ Berako arte gunea

Estenoipeka teknikaz ateratako argazki hau bezalakoak ikusi ahal izanen dira Berako Herriko Etxean.

● ASIER GOGORTZA

info: ertz@jazzfree.com
(0034) 948 631222

drildarra ariko da. Lopezek egingen duen musika erabat giro-musika da, ambientala azken batean. Iaz Ertz jaialdian izan zen madrildarra, eta publikoaren harri bera jaso zuen.

Ertz jaialdiaren ondorio da, hain zuzen ere, honako emanal-

di hau. Urtean zehar Ertz jaialdi esperimentaleko ildoak jorratu nahi dute, eta hala, hainbat kontzertu eta emanaldi prestatu dituzte. Epe motzean ere, Berako eta eskualdeko hainbat artistaren lanarekin webgune bat paratuko dute martxan, edonolako

arte motaren esperimentazioen leiho. Urtea bukatu bitartean ere bertze kontzertu sorta bat aditu ahal izanen da Beran Ertzeko antolatzaileen eskutik, betiere esperimentazioari loturik.

→ Jon Abril

Dantzari ttikien bilgune

GURE TXOKOA DANTZA TALDEAK antolatuta, zazpigarren urtez egingen da igandean Beran Dantzari Ttiki Eguna. Euskal Herriko etorritako lau talde eta beratarrek ariko dira egun osoan zehar herriko karriketan barna dantzaz.

Goizean guztiak elkartu ostean, auzoz auzo ariko dira lau dantza taldeak, Berako Gure Txokoa Dantza Taldeko gaztetxoek lagun dituztela. Beratarrekin batera, Lezo, Zaldibi, Lizarra eta Hendaiako taldeak ariko dira. Horrela, Agerra, Burga, Bera, Alzate, Itzea, Illekueta, Legia, Kanttonberri, Eztegarra eta Iturlandeta auzo eta karriketan barna ariko dira dantzariak goizeko 11:00etatik goiti. Hamaiketako hartuko dute auzo guztietan, eta 12:30ean talde guztiak Jamotenean elkartuko dira, eta handik Alzatera joango. Harat ailegatuakoa agurra eta agintariena dantzatuko dituzte talde guztiek elkarrekin, eta ondorengo bazkaltzera joanen dira Berako dantzari ttikien etxetara. Arratsaldean Jamoteneako egoitzan elkartuko dira berriz ere talde guztiak, eta Eztegarra pilotalekuraino kalejira joanen dira. Talde bakoitzak bere emanaldia eskainiko du jaialdi batean, eta horrekin bukatuko da eguna.

Gure Txokoa Dantza Taldeak, gaur egun, 200 bat dantzari biltzen ditu, beratarrek guztiak, hainbat taldeetan. 6 urtetik aitzinerako haurrak biltzen dituzte, eta haurren taldeak ez ezik, gaztetxo eta gazteenak ere biltzen ditu. Urtean zehar bestetako emanaldia eta Dantzari Ttiki Eguna dira Beran eskaintzen dituzten emanaldi garrantzitsuenak, hainbat auzotako bestetakoekin batera.

→ Jon Abril

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Oraindik ere zur eta lur gaude, New Yorkeko dorre bikiak erorketa burutik ezin uxatuz. Irudiaren garai honetan gertatzen denaren berri ematen zaigu zuzen-zuzenean telebistaz eta film amerikarrek erakusten zutena baino askoz ere zirrargarriagoa suertatu zaigu zuzeneko bidez.

Berriz ere fikzioa baino krudelagoa izan da errealitatea. Onartezina egin zaigu hasiera batean Woody Allenek horrenbeste aldiz gerturatu digun Manhattan aldearen bat-bateko itxuraldaketa benetakoa zela sinistea. Mundu aberatsaren bihotzak ukiezina zirudien. Horrela zela uste genuen eta oker ginen erabat. Daviden harritxintxarrak min egin dio Goliathi, bete-betean buruan eman diolako baina... erraldoiak hain dira harroko...

Gerra

guda eta mendeku hitzak besterik ez da aditzen, eta kaltetuen haserre eta dolua guztiz ulergarri izanik ere, beldur gara ez ote dituen munduko nagusiak erruduntzat hartuko munduan zehar gertatzen denaren berri jasotzeko aukerarik ez duten herri xeheak: burqa-ren atzetik bizi diren emakume errukarriak edo beren haur gosetiak, edo fede oneko beste hainbat gizon afganistandar. Pobrezi larrian, inongo eskubiderik gabe bizitzera kondenatutakoak zertaz izanen dira ba errudun?

Manhattango haurrek umezurtz gelditzeko ezer gaix-

torik egin ez duten bezalaxe... zer leporatu dakieke Ert-Aziakoei, orain horren mehatxu larria beren buru gainean edukitzeko?

Guda egitea omen dago gizaki-izatearen alderik ilunarenekin lotuta. Hala ere, jakina da gerrate hotzak ez dakarrela berarekin ezer onik, hondamena baizik. Zuzeneko gerrarik bizi izan ez dugunok ere jakin badakigu zeinen larriak diren gudaren ondorioak. Jakin ere badakigu gaurko injustiziek biharko liskarrak dakartzatela eta indarkeriak areagotu egiten dituela auziak eta jendarte-ko borroak. Gerra luzarorako iragartzen zaigu eta, hala bada, askoz ere luzeagoa izanen da ere denon kalterako, herrien arteko gorrotoa. Deus onik ez, jendea... deus onik ez.

Iruñea • San Fermin Txikiko erraldoiak

AIREA ETA LURRA IRUDIKATzen dituzten bi erraldioen aurkezpena izanen da aurtengo San Fermin Txikito jaietako berrikuntza nabarmenena. Alde Zaharreko erraldioen konpartsak lau kilikiekin hasi zen. Duela lau urte sei erraldoi ttiki egin zituzten; eta duela hiru urte, beste lau zaldiko. Orain bi erraldoi aurkeztuko dituzte, Airea eta Lurra; eta hemendik gutira, Alde Zaharreko Egunean, Sua eta Ura.

Astelehenean egin zuten jaietako egitarauaren aurkezpena, eta bertan Jai Batzordeko kide Toni Iragik erraldioen konpartsa-rena lana goraiatu zuen. «Konpartsak 40 kide ditu, eta handituz doa auzoko zenbait gaztek egiten duten lan eta esfortzuari esker», erran zuen.

Jaien aurrerapen gisa, konpartsak kultur aste mamitsua egin du. Horren baitan *Erraldioen mundua* izeneko erakusketak paratu dute Navarrerria kultur zentroan. Aipatzekoa da, halaber, Alde Zaharreko erraldoi eta kilikiak ez ezik beste auzoetakoak eta Iruñekoak ere ibiliko direla.

Bestetik, aurtengo jaiak 70 ekitaldi baino gehiagok osatzen dute. Berrikuntzen artean, nabarmentzekoa da bizilagun talde batek 'truko' izeneko karta jokoa berreskuratu duela, eta txapelketa egingen dutela igandean, 16:30ean, Meson de la Tortillan. Azkenik, berrikuntzen artean aipatzekoa da, hainbat urtetan agertu gabe egon eta gero, aurtengo, Bullicio eta Irrintzi peña txiki-txiki kideak aterako direla.

Betiko ekitaldiei dagokienez, erran behar da igandeko prozesioak 25 urte beteko dituela, eta larunbateko kalderete eta paella



Alde Zaharreko erraldoi eta kilikiak jaietako parte garrantzitsua dira. • MIKEL SAIZ

Gaurtik igandea arte 70 jai ekitalditik gora izanen dira Iruñeko Alde Zaharrean

Karen Fernandezek, 8 urteko alkate andereak, hasiera emanen die gaur Aldapako San Fermin bestei. Nekane Esquina eta Josu Moreno zinegotzi txikien laguntzaz, jaien hasiera iragartzeko suzeria jaurtikiko du, 12:00etan.

txapelketan dagoeneko 200 lagunek eman dutela izena.

Karrikan etxean bezala

Ekitaldiz beteriko jaiak izanen dira. Alde Zaharreko kaleak jendek gainezka egonen dira. Horrek sortuko duen zarata eta zinkkeriari aurre egiteko «Karri-

kan etxean bezala» izeneko kanpaina abiatu dute bigarren.

Bestaz gozatzeaz batera, bizilagunak eta ingurua errespetatzea bilatzen du kanpainak. Horretarako, plastiko gogorreko 2.000 edalontzi banatuko dituzte, 200 pezetakoak. Parrandazaleek gaur berean edalontzi bera erabiliko

dituzte, zabor gutxiago sortuko da. Zaborrontziak ere ugarituko dituzte. Eta makina bat kartel, eranskailu eta liburuxotan gogoraraziko dute txiza behar den tokian egin behar dela, eta jotak ezin direla ordu oro kantatu.

→ Asier Azpilikueta

egitaraua

Ostirala

12:00: Txupinazoa, Corazonistasen terrazatik.
12:15: Kalejira erraldoi, kiliki eta musika bandekin.
18:00: Txokolate jatea Navarrerria plazan.
18:45: Mozorroren kalejira, Navarreriatik gaztetxera.
19:00: Haurrentzako jokoak gaztetxean.
19:30: Harrera beste auzoetako maiordomoei, katedralean.
20:00: Entzierro txikia.
21:00: Zurrakapote antzerkia gaztetxean.
22:30: Zezensuzkoa Aldapa kaletik.
23:30: 'Txalaparauta' Jarautan.
00:00: Mozorro jaia Irrintzi peñan.
00:00: Alde Zaharreko boys' Corazonistas plazan.
00:15: Suhar eta Zirikatu taldeen kontzertua Corazonistas plazan.

Larunbata

10:00: Antigoaleko gauzen merkatua txikia San Jose plazan.
12:00: Auzoetako erraldioen kontzentrazioa katedralean.
13:00: Agureen lasterketa Carmen kaletik.
16:30: Kafea eta ipuin kontalaria gaztetxean.
18:30: Goitibeheren jaietsiera Zaldi Zuritik.
18:30: Iruñeko erraldoiak eta kilikiak.
20:00: Entzierro txikia.
22:00: Kontzertua eta bideoa gaztetxean.
22:30: Zezensuzkoa.
22:45: Zikiro jatea Aldapa kalean.
00:00: Su malabareak Corazonista plazan.
00:00: Zantantzara Aldapa kaletik.
06:00: Salda beroa Irrintzi peñan.

Igandea

10:00: Eskulangileen feria San Jose plazan. Egun osokoa.
11:00: Ogiaren feria Zakatin ondoan. Egun osokoa.
11:30: Meza nagusia Aldapako San Fermin basilikan.
12:00: Prozesioa auzoko karriketatik.
13:30: Jota jaialdia Navarrerria plazan.
17:00: Erraldoi eta kilikien konpartsa Navarrerria plazan.
18:00: Euskal jaia Udaletxe plazan.
18:30: Popi eta Zarratrako pailazoak Adoratrices plazan.
19:15: Herri kirolak Burgoen plazan.
20:00: Entzierro txikia.
21:00: Keltiar Aldea taldearen kontzertua Navarrerria plazan.

Gudermes

Gaurko egunkarietan txetxeniarrak Gudermes hiria hartu dutela irakurri dut, eta Gudermes Txetxeniako bigarren hiria dela errepikatzen zuten behin eta berriz artikuluetan.

Bigarren hiria. Gudermes gaixoa! Ez da egia noski, sinplifikazio bat besterik ez da. (Egunkarietan agertzen diren gauza guztiak dira sinplifikazioak, doike, gero eta urrutia goa gero eta sinplifikatuagoa).

Orain dela bost urte bigarren hiria izango zen, Grozni hiriburuaren atzetik, baina gaur egun lehendabizikoa da. Grozni ez baita existitzen. Deuseztatu zuten. Desagerrarazi zuten. Empire State Building horrekin antzeko zer edo zer gertatzen ari da. Orain arte New Yorkeko bigarren eraikina izango zen, baina maillot horia gaur egun berea da. Hemendik aurrera eta Empire State Building horretaz ari direla «Hiriko eraikinik handiena» esango dute, seguru, eta esanen dizuet zergatik: denok ikusi ditugulako, zuzenean, dorre bikiak jausten. Grozni-kin ez zen gauza bera gertatu. Teletistik ez zuen zuzenean eman. Ez zen CNNko Breaking News! Grozni Under Attack! edo horrelakorik izan.

Inork ez zuen zuzenean Parlamentuko egoitza sutan ikusi. Hondamendiaren erdian ez zen erreskate lanik egin. Hiltzaileen argazki eta izenak ez ziren pantailaratu. Putinek zer ikastaro eta non jaso zituen ez ziguten argitu. Grozni hiriak maillot horia galdu zuenekoaren eguna ez baitzen transmititu. Horrexegatik segitzen dute esaten Gudermes Txetxeniako bigarren hiria dela. Eta Gudermesek kopetarraino egon behar du. «Ni akabatzen banaute», pentsatuko du, «bigarren mailako hiri bati dagozkion hiletak egingo dizkirate, eta hori ez da bidezkoa, aizue. Ez dut zuzeneko pantailaratze mundiala eskatzen. Ez dut Sadar futbol zelaian minutu bateko isilune bat aldarrikatzen, baina 'Txetxeniako hiri nagusia hondatua' edo horrelako zerbait bai. Gauzak diren bezala jasotzea, aizue. Sinplifikatu gabe».

Empire State Buildingek ez du horrelako kezkarik izango. Erortzen bada ere, kristoren hileta elizkizunak izango baititu. Bera baita gure erreferentzia eta guztien artean lehendabizikoa. •

Uztondoak erretzearen ondokoa

URTEROKO KONTUA DA. UZTAREN ONDOKO hondarrek zer egin? Uztondoak erretzearen inguruko informazioa emateko, uztailaren bukaeran hitzaldi sorta eman zuen Nafarroako Gobernuak Tuteran, Sesman eta Pitillasen. Gero, abuztuan, UAGN sindikatuak antolatuta, Caparrosen eta Azkonan. Helburua: nekazariak jakinaraztea uztondoak erretzeak ez dakarrela onurarik, eta eginez gero, ahalik eta segurtasun neurri gehienekin egin behar dela. Aurten, gainera, SOS Nafarroak, larrialdietako koordinazio zentroak, telefono zenbaki berezia du (948-427515) nekazariak bezperan jakinarazteko ea hurrengo egunean erreketarik egiten ahal duten.


Hala ere, uztondoaren erreketen eraginez, irailaren 3an sute bana egon zen Arroitz eta Armañantzen.

Sute asko irailaren hasieran

Kurioski, irailaren 8an, Gobernuak prentsa ohar baten bidez adierazi zuen Ingurumen Departamentuak aurten ikusi izan duela nekazariak uztondo gutxiago erre dituztela, erre dituztenean segurtasun neurriak zorrotz dituztela, eta askok uztondoak erre ordez lastoa lurperatu egin dutela; eta hori guziaz, «suteak prebenitzeko uztailan abiatu informazio kanpainaren eraginez».

Ohar berean, Gobernuak gogorarazten zuen uztondoaren erretzeak, CO₂ asko aire-ratzeaz batera, lurra babesik gabe uzten duela eta mikrofauna hiltzen duela; modu honetan, laborantza lurra pobretu egiten da. «Era berean —segitzen zuen oharra—, uztondoaren erretzea suteen arrisku faktorea da eta, anitzetan, lursailen mugak eta ezpondak kiskaltzen ditu, eta hauek balore ekologiko handiko lekuak dira, garrantzi handikoak eperra, erbia zein basoila beza-lako ezpeziendako».

Azkenik, uztondoaren erretzearen alternatiba gisa, Departamentuak lastoaren lurperatzea gomendatzen zien nekazariak. «Las-



● MIKEL SAIZ

Gobernuaren gomendioak

Azken egunetako suteen sorburua ikusita, irailaren 11n bertan, Javier Markotegi Ingu-

toaren lurperatzea onuragarria da lurrari materia organikoa eta osagai elikagarriak ematen dizkiolako», zioen oharra.

Eta, halarik ere, irailaren 10ean sutea izan zen Añorben. Eta irailaren 11n, Uxuen; eta Zufian eta Allotzen foruzainek sua egitea eragotzi zuten. Lau kasuetan sua egitea debekaturik zegoen eguraldia egokia ez zelako. Egun horretan denetara hamar sute izan ziren.

Nafarroan gertatzen diren suteen %60 baino gehiago uztondoaren erreketatik gertatzen dituzte

Urtero, abuztuaren lehen egunean, hasten da Nafarroako hegoaldean uztondoak erretzea. Hilabete geroago lurralde osora zabaltzen da baimena. Urtero egiten dira uztondoaren erre behar bezala kontrolatzeko hartu beharreko neurrien gaineko informazio kanpainak. Urtero uztondoak erretzearen ondorioz makina bat sute sortzen dira. Ekologistak Martxan taldeak erran duen %60 baino gehiago uztondoaren erreketen ondorioz sortzen direla.



Uztondoak erretzeak, CO₂ asko aire-ratzeaz batera, lurra babesik gabe uzten du eta laborantza lurra pobretzen. Gainera, suteak pizteko arriskua dago uztondoak erretzean

ren bukaeran, uztondoaren erreketek eragin suteengatik ezartzen ahal diren isunak aipatzen zituen.

Nekazariak, baina, jarraitu dute uztondoak erretzen. Irailaren 13an sute bana izan zen Etaion eta Vianan. Ekologistak Martxan taldeak gogorarazi du Nafarroan gertatzen diren suteen %60 baino gehiago uztondo erreketek sortzen dituztela. Talde horretako Iruñeko kide Juanma Hernandezen aburuz, «antzinako ohitura honek sekulako kaltea dakar».

Kaltea landaredian, faunan, sua itzali behar duten pertsonengan eta lurrean. Hortaz, zergatik segitzen dute nekazariak uztondoak erretzen? Hernandezen aburuz, batetik

ohitura kontua da, eta, bestetik, «sua egitea oso erraza dela».

Onurarik gabeko ohiturarekin bukatu

Nafarroako gune idorrean ohiko praktika da erreketak, euri askorik egiten ez duenez, lastoa usteltzen ez delako; lasto usteldu gabeak ez du uzten erin beharreko lursailen makina sartzen; eta nekazariak ereite goiztiarra egin nahi badu, uzta ona lortze aldera, biderik laburrena aukeratzen du, lastoa erretzea.

«Zaila da hori haien burutik kentzea», dio Hernandezek. «Suak den-dena erretzen du, ez bakarrik lastoa. Zomorro onak eta txarrak akatzen ditu, belar onak eta txarrak. Guk proposatzen dugu uztondoko lastoa xehetzea eta lurperatzea. Materia organikoa lurrari itzuliz lurra aberasten da. Eta hori esker murriztuko da ongari kimikoen erabilera. Eta lastoa lurperatu nahi ez bada, fardoetan bildu eta Zangozako biomasa zentralera eramaten ahal da, elektrizitatea egin dezaten; aukera hori ere badago».

Gobernuak segurtasun neurriak gogorarazten ditu urtero. Baina batzuetan neurri horiek ez dira betetzen eta beste batzuetan nahiz eta neurriak hartu, deskuido batean, haize bolada batez, sortzen da sutea. «Sua oso arrisku-tsua da, kontrolatzen zaila», komentatu du Hernandezek. «Bada, Gobernuak erran badu uztondoaren erretzeak ez dakarrela onurarik, zergatik erre? Antzinako ohitura delako? Antzinako ohiturak kaltegarriak direnean ezabatu egin behar dira. Eta bere ordez beste ohitura batzuk sortu. Gobernuak gomendioetatik ekintzetara pasatu behar du. Debekuaren aldeko urrats sendoa egin beharko luke». Ildo horretan, irailaren 14an, Batzarreko kide Milagros Rubiok lege porposamena egin zuen uztondoaren erretzea debekatzeko.

Informazio gehiago: www.ecologistasenaccion.org

Uztondoaren erretzearen inguruko txosten zabala eskuratzeko ahal da bertan.

→ Asier Azpilikueta



Gobernuak dio uztondoak erretzeak ez dakarrela «bateren onurarik». Nekazariak segitzen dute, «ohituragatik» eta «lastoa desagerrarazteko modu lasterra» delako.

● MIKEL SAIZ

UAGN

«Erreketak desagerraraztera jo behar da»

UZTONDOAK ERRETZEA «OHITURA HANDIKOA» da Nafarroako nekazarien artean, UAGN sindikatuko teknikari Santi Bujandaren hitzetan. «Eztabaida gaia da gure afiliatuen artean, frogaturik baitago erreketek sute asko eragiten dituztela». Bujandak dioenez, UAGN-erendako, ohitura hori desagerraraztera jo behar da. «Baina desagertze hori mailaka egin beharko da, nekazari askok beharrezkotzat ikusten dutelako erreketak. Erdialdean eta Erriberan euri guti egiten du, eta uztondoaren lastoa ez da usteltzen. Hori ikusirik, eta hazi berriek lehenago ereitera behartzen gaituztenez, nekazari askok ontzat jotzen dute uztondoa erretzea. Erreketak arras praktika lasterra da, eta makinak sartzeko egoera ezin hobean uzten du lurra».

Bujandaren aburuz, uztondoak erretzea «arriskutsua» denez, «arrazionaltasunez» egin beharrekoa da, «ahalik eta neurri gehienekin». «Izan ere, zenbait eremutan, kultura arrazoiengatik, eta udak arrunt idorrek direlako, erretzea saihestezina da lursaila prest izateko ereite berriak egite aldera».

Ingurumen Departamentuak antolatu informazio hitzaldietan parte hartu du UAGNk. «Departamentuarekin hitzartu genuen lursailen arteko banaketa zerrenda hirutik lau metrora eramatea eta erreketak egiteko bost lagun behar izatea, bi traktorerekin», dio Bujandak. «Hitzaldietan, bi ideia halarazi nahi izan genizkien nekazariak: batetik, arrazoizko epe batean desagertu beharko lukeen jardura dela; eta, bestetik, praktika txarra baina beharrezkoa dela pentsatzen duten nekazariak neurriak zorrotz behar dituztela».

Bujandaren iritziz, «berez, inork ez du uztondorik erre nahi». «Abuztuan euria egiten badu, uztondo gutiago erretzen da; euria lastoa usteldu eta honek materia organikoa ematen dio lurrari. Baina ez badu euriarik egiten, lastoa bertan gelditzen da, eta ezin da sartu lurra lantzeko makina, trabatu egiten delako». Azkenik, Bujandak dio nekazariari ulertarazi behar zaiola erreketarekin bere lursailen bertan duen materia organikoa suntsitzen ari dela, deusetarako erabili gabe.

EHNE

«Etorkizuna lastoa lurreratzeetik pasatzen da»

«EHNEK BULTZATZEN DUEN NEKAZARI-tza motaren baitan ez da uztondoaren erreketen gisako praktikarik sartzen, baina ikusten dugu zenbait laborarik ezinbestekotzat jotzen dutela», erran du EHNE-Nafarroako lehendakari Natxo Larrainzarrek. «Erreketak egiten dituztenen jarrera ulertzen dugu, baina uste dugu horrelako praktikak baztertu behar direla. Nire iritziz, horretan gara eta, denbora pasatu ahala, desagertzen joanen da».

Larrainzarrek adierazi duenez, Nafarroa hezean ohitura hau desagertzen ari da. «Erabiltzen diren ereite metodoekin erreketak ez du batera zentzurik. Hortaz, lastoa lurperatzen da. Edo bestela, fardoak egin eta saldu egiten dira, azken urteetan ongi ordaintzen ari baitira lastoa».

«Nafarroako hegoaldean, ordea, ohiko praktika da erreketak», segitu du Larrainzarrek. «Bertan ez dute iraulpen laborantza egiten, eta gehiago jotzen dute gutieneko laborantzara edota ereintza zuzenera. Nekazariak uztondoa erretzen dute lastoa idorregia dagoenean ereitea arras zaila delako».

«Uzta ona lortzeko, lurra, nitrogenoa, fosforoa eta potasioa ez ezik, materia organikoa behar du», baieztatu du EHNEko burua. «Eta edozein nekazariaren eskura dagoen materia organikorik hurbilena lastoa da. Etorkizuna lastoa lurreratzeetik dator. Nafarroako alde idorrean gehiago kostako da. Baina kontuan hartu behar da hango lurrek dutela behar handiena. Eta berehala nabaritzen dira materia organikoa lurreratzearen onurak».

Azkenik, Larrainzarrek esplikat duenez, gasolioaren prezioaren igoerak era badu eraginik nekazariaren jokabideetan. «Merkeagoa zenean, errazagoa zen nekazariak erabakitzea lursailen makina sartzea lastoa kentzeko; baina orain merkeagoa da uztondoa erretzea makina sartzea baino. Are gehiago, duela zenbait urte jendeak makina sartzen zuen, lurra ereiteko prest uzten zuen eta, bide batez, belar gaiztoak suntsitzen zituen. Orain, gasolioaren prezio handiekin, merkeagoa da herbizida botatzea eta makina ez sartzea».

Konpresa iragarkia

Zer usain du udazkenak?

Ikasturtea hasi da. Ez naiz ari Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko presidente **Rafael Ruiz de la Cuestak** aizkolaririk trebeenen modura, **Mindegia** handia bezain trebe, gobernu erregionalistari egurra emateko baliatu zuen urte judizialaren hasieraz. Ikasturte akademikoaz ari naiz. Baina ez naiz ari Ruiz de la Cuestak ez bezala euskara aintzat hartzeari muzin egiten dioten **Antonio Perez Pradosen** edo **Jose Maria Bastero de Elizalde**ren eta errektoreen unibertsitate publiko zein pribatuak ikasturteaz. Ez bainaiz ari egunkarien bitartez eza gututako ikasturte hasierez. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasturteaz ari naiz. Hasi da. Eta horretaz jabetzeko ez dut egunkarien beharrik. Aski dut sudurra. Aski dut sudurretik arnasa hartzea seme-alabak besarkatzen ditudalarik. Azken hilabeteotan ez bezala, ez dute Nenuco usairik. Ez dute gominola lurrinik. Kuartel usaina darie. Soldaduska Burgosen egin nuelarik neure buruari zerion kirats bera. Hamaika aldiz arnasturiko aireak, hamaika zapatatik ihes egiten duen fragantziak, hamaika lagunentzako egin janariak arropetan, ilean, azalean itsatsita uzten duena. Ikastola usaia. Kiratsa.

Iraganeko fragantziak? Ni sortu nintzen enbor beretik sortu direnez, Larraitx —zazpi urteko alaba— eta Jon —irakasle talibanen batek burua janda Juan Kruz deitzeari uko egin dion 9 urteko semea—, Jon

JOXE LACALLE



Jose Antonio Gaiarre, Bardeako Batzordeko lehendakaria.

eta Larraitx, besarkatzen ditut, hala eta guztiz ere. Baina haien usaia birikaritzeak deprimitzen nau. Aurki Iruñeko karriketan barna barreiatuko den gaztain erre usaia ondorio bera du. Bai eta uso gisatuaren zaporeak ere. Oreinen orroek bezala —azken paragrafo honen copyright-a egin beharko dut, konpresa enpresaren batek ez diezadan lapur—. Guztiak udazkenarekin lotzen ditut, eta udazkenak deprimitzen nau. Udazkena helduta, salestarretara itzuli behar



Haurrak ikastetxera sartzen.

izaten nuen, salestarretara itzultzea deprimitzeko modukoa zen, deprimitzeko modukoa zenez. Hogeitaz igaro dira jada —tangoak deus ez dela esanagatik ere, bada zerbait— salestarretara azkenekoz itzuli behar izan nuenetik —ikasle moduan, jakina—. Bestela gero ere inoiz joan izan nintzen, euskal burbujaren kultur ekitaldi aspergarri horietakoren batera: irakurri, esaterako, **Benito Lertxundi**, edo **Gontzal Mendibil**, edo **Amaia Zubiria**, edo, *au secours!*—. Hala ere, deprimitzen segitzen dut. Ikasturte atariko depresioari doakioanean, behin betiko ikaslea naiz, *in*

secula seculorum, amen, salestarrek otoitz egitera behartzen gintuzten moduan. Aurten, gainera, are gehiago deprimitu naiz, egunkarian aspaldikoa, oso aspaldikoa dirudien esaldia irakurrita, **Jose Antonio Gaiarre** naftalina eta ongari usaidun parlamentario erregionalistaren ahotsan: «Comunista de los cojones» (Komunista potrosoa, gutxi gorabehera). Nafarroan gauzak dauden bezala egonda, munduan gauzak dauden moduan egonda, akaso Jonek ezinbestean salestarretan amaituko du ikasturtea, eta Larraitxek Jesusen Esklaboetan.



panpilonia zirkus

Ezker Batuak

Ezkerraren baloreak betiko galdu dira. Gizakion arteko elkartasunak ez du tokirik. Gutxiengoak ez dauka lekurik. Eskuina nagusitu da gizarte global honetan.

Historian zehar, ordea, Pablo Picasso, Miguel Angel eta Leonardo Da Vinciren zizelek eta pintzelek ezker hegaletik jo izan dute.

Gurean, Juan Carlos Lukin haien lekukoa hartzeko prest daukagu. Jada, ezkerreko eskua altxatu du. «Artista, ez dakit, baina autista behintzat ez dut izan nahi».

Nahiz eta UPN alderdia jaun eta jabe izan hiri honetan, ezkertiarrek topagune berezia zabalik dute iruindar ezker honi esker. Alde Zaharreko San Frantzisko karrika estuan. «Nire liburu dendaren barruan, El Rincon del Zurdo txokoa antolatu dut».

Gure protagonistak hogeita hamaika urte eta hamaika arazo ditu eguneroko bizitzan. «Sardina-lata zabaldu nahi eta ezin, azkazalak txukun moztu nahi eta ezin, koadernoan zuzen idatzi nahi eta ezin».

Burmuinaren eskuineko atalarekin egiten dute lan ezkerrek. Besteok, berriz, ezker aldearekin. «Behin eta berriz saiatzen dira gure jokaera naturala aldatzen eta behartzen. Horren ondorioz, arazo larriak sor daitezke, mintzamina, irakurmena, idazmena eta inguruarekiko harremana lantzeko tenorean».

Mundua eta bizitza eskuineko eskuarekin eginak daude. Hori dela kausa, kexu azaltzen da gizartearen ezkerreko begikoa ez duelako izan nahi. «Mugimendu meka-



Juan Carlos Lukin, El Rincon del Zurdon.

niko sinpleenak ere aurretik pentsatu behar izaten ditugu. Behin eta berriz. Egun osoan. Nekagarria da benetan».

Etengabeko lan gehigarri horren ondorioz, zenbaiten ustez, gazteago hiltzen dira ezkerrek. Beste batzuek diotenez, aparteko adimena lortzen dute, garuna hainbeste astindu eta gero. Batek daki.

Juan Carlos Lukinen esanetan, «administrazioak eta familiak ez diote merezi duen garrantzia ematen arazo honi. Ene iritziz, lan nagusia eskolan egin behar da».

MIKEL SAIZ

Pello Argiñarena

Kopuruari dagokionez, biztanleen %10 ezkerrek dira. Hau da, Iruñean, hogeitaz mila lagun inguru. «Egunetik egunera, gero eta jende gehiago etortzen da erosketak egitera. Batez ere, aholkua eta zerbitzua eskaini nahi izaten diet. Helburu ekonomikoak ez du lehentasuna».

Apalategietan, berriz, beste edonon baino prezio garestiagoak eta aukera eskasagoak: idazluma 425 pezeta, latak irekitzekoak 450, guraizeak 1.800...

Sarritan, San Frantziskoko ezkerreko zeroen nahiak eta beharrak bete ezinean ibiltzen da. «Gaur goizean bertan, ezkerreko eskuarekin jotzeko flauta egokia erostera etorri dira. Tamalez, nik ez dut horrelakorik dendan». Hala ere, bihar bertan hasiko da ezker-eskuin gisa horretako txirula baten atzetik.

Asun Arribillaga

PLAZAOLA PARTZUERGO TURISTIKOKO KUDEATZAILEAREN ALBOKOA

«Donostia eta Iruñea lotu nahi ditugu»



• MIKEL SAIZ

soslaia

Plazaolako Antzinako Trenbidea Lehengoratzeko Proiektua 1993 urtean idatzi zen. Urtebete geroago, Plazaola Partzuergo Turistikoak sortu zen Lekunberriko Kontzejua eskutik.

Lehenengo egoitza Lekunberriko udaletxean zegoen, harik eta, 1998. urtean, egungo eraikinaren berrikuntza lanak amaitu ziren arte. Bertan, Plazaola Partzuergo Turistikoaz gain, Cederna-Garalurren egoitza eta Lekunberriko Turismo Bulegoak daude.

Nafarroan sei partzuergo turistiko daude: Bertiz, zaharra; Plazaola; Pirinioa; Tierra Estella, Estellerri; Zona Media, Erdialdean; eta Eder, Erriberan. Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen dute beren finantzaketa nagusirako.

gara jada Eusko Jaurlaritzarekin.

■ **Nolako harremanak dituzue Nafarroako gainerrako partzuergo turistikoekin?**

Iparraldeko partzuergoek, hau da, Bertiz, Pirinioa eta Plazaolarekin, oso harreman estua daukagu. Beste hainbat elkarrekin partaidetzaekin, Nafarroako Mendialdea izeneko lan mahaia sortu dugu. Mendialdearen garapenerako sustapen ekintzak egiten ditugu elkarlanean. Aurten, adibidez, www.pirineonavarro.org webgunea sortu dugu, non partzuergoen inguruko datuak, eskaintza turistikoak eta mota askotako informazioa aurki daitekeen.

■ **Bukatu da uda. Turista asko etorri al da zonaldea ezagutzera?**

Datu zehatzik ez daukagu, baina turistak etorri, etorri dira. *Plazolaren bidexkak* izeneko liburuxka eta *Plazola Natur Gida* eskatzera etortzen zaizkigu normalean. Bertan ingurua ezagutzeko eta gozatzeko ibilbideak eta zerbitzuak aurki daitezke.

■ **Onurarik ekarri al dio Plazaolak zonaldeari?**

Bai, dudarik gabe. Gure herrietan gauza asko daude ikus-teko eta egiteko, eta, normalean, ez ditugu ezagutzen.

→ Estibalitz Ortega

Plazaola Partzuergo Turistikoak Iruñea eta Donostia lotzen zituen ospe handiko trenari zor dizkio izena eta izana. Egoitza Lekunberriko lehengo tren geltokian du, eta natur bideak sustatzea du helburu nagusietako bat.

ditugu, betiere turismo orekatu bat oinarritzat hartuta.

■ **Zein erakundek osatzen dute Plazaola Partzuergoa?**

Sortu zenean ahalik eta interes gehien ordezkatuko zuen egitura bat nahi zuten. Partaidetza erakunde publikoak (Araitz, Areso, Betelu, Larraun, Leitza, Lekunberri eta Ultzama) eta pribatuak (ostalaritzari, landetxei, eskulangilei eta bestelako jardueri loturiko elkarteak) dira. Denek diru kopuru jakin bat ordaintzen dute. Udalena eta kontzejua bizilagunen arabera izaten da.

■ **Zertan gauzatzen da zuen lana?**

Azken urteotan lurraldean eginiko ekintzak ugariak dira. Besteak beste, Orgiko Hariztian Nafarroako lehen Jolas Area Naturala sortu zen, 1996an; Beteluko Burdinola

«Iparraldeko partzuergoekin oso harreman estua daukagu.

Beste hainbat elkarrekin partaidetzaekin Nafarroako Mendialdea izeneko lan mahaia sortu dugu»

garbitu eta egokitu da, eta Partzuergoaren lurralde osoan zehar ibilbide eta xenda lokalak egokitu dira. Bestalde, Plazaola trenaren ibilbidearen lehenengo faseko obrak egin eta inauguratu dira, eta trenaren historia ezagutzera emateko erakusketa bat antolatu da aurtentzen.

■ **Zeintzuk dira zuen diru sarrera eta gastu nagusiak?**

Guk 25 bat milioi pezetako aurrekontua daukagu (milioi

bat libera). Urtetik urtera handiago izaten da, gero eta mugimendu gehiago baitago. Diru sarrerak Nafarroako Gobernutik, kideek ordaintzen dituzten kuotetatik eta Cederna-Garalurren Garapen Agentzietatik datoz. Bestalde, gastu nagusiak proiektuekin eta eraikuntza mantentzeko egin behar diren gastuekin lotutakoak dira.

■ **Zeintzuk dira heldu diren urteei begira dituzuen proiektuak?**

Astizko Mentrokilloko kobazuloko obrak hasiak dira, eta 2003 urtean irekitzeko asmoa daukagu. Iribasko iturburuaren inguruko obren bigarren fasearekin ere hasi nahi dugu eta, jakina, 2002. urteko udan Gipuzkoako mugaraino doan antzinako trenbidea egokitu nahi dugu. Hirugarren fase batean, Donostia eta Iruñea lotzea du helburu. Horretarako harremanetan jarri

ASUN ARRIBILLAĞAK, 33 URTEKO leizarrak, administrari lanetan jardun ohi du Plazaolan, baina badira zenbait hilabete kudeatzaile ordezko lanetan ari dela.

■ **Zein helbururekin sortu zen Plazaola Partzuergo Turistikoak?**

Naturan aisialdirako eremu bat sortzeko asmoz eratu zen. Hau da, Plazaola izeneko trenaren ibilbidea egokitu eta natur bideak sortzeko. Horrekin batera, inguruko landa turismoa sustatu, turismo eskaintza antolatu eta planifikatu eta lurraldea sustatzeko sortu zen partzuergoa.

■ **Nork eratu zuen hasierako proiektua?**

Garai hartan, Lekunberriko Kontzejua izan zen proiektuaren sustatzailea, baina trenbideak zeharkatzen dituen tokietako erakunde guztiak eta eskualdeko turismo enpresak barne hartuko zituen organismo bat sortzeko lehen urratsak egin ziren.

■ **Denboraren poderioz, aldatu al dira helburu horiek?**

Ez. Natur bideak sustatzeaz gain, gero eta egitasmo gehiago



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Biluztutako hizkuntza

I kasturte berria aurrekoa amaitu zen bezala hasi dela ematen du, gaur euskarari ostikada bat, bihar euskaldunoi zaplazteko bat eta etzi hor konpon marianton. Aurreko hilabeteotan ezagutu genuena ez zen Gurrearen bi minutuko beroaldiaren ondorioa izan, baizik eta epe luzeko estrategiaren barruko kolpeak, testuinguruak lagunduta. Horregatik euritakoa jantzita atera dira umeak ikastola eta ikastetxeetara.

Testu liburuen gaineko kontrol zuzenarena iragarrita zegoen. UPNren Gobernuak ahalegin itzelak egin baditu ere, ezin izan du euskarazko ereduaren gorakada gelditu; hortaz, adar berri batetik hasia erabaki du. Beste erremediorik ez badago, euskaraz ikas dezatela baina gatzeleraz ariko balira bezala, edukiak mugatuz eta behar izanez gero hainbat libururen edukiak galaraziz eta zentsuratuz.

Honakoa ez da hizkuntza eta kultura bereizteko egiten den lehenengo saiakera, baina bai ziur aski azkenaldi honetan egin den larriena (eta asko izan dira). Maiz entzun izan dugu hizkuntzak berez neutroak direla, komunikatzeko bide soil bat baino ez direla, gauzak esateko erabiltzen den kodea. Baina halakorik esaten duten gehienek ez dute erparorik ikusten EEBBetako gutxiengo jakin batzuen hizkuntza eskubideak sutsuki defenditzeko edo 'n' hizkiaren afera informatikoa estatu arazo bihurtzeko.

Edozein hizkuntzarekin lotuta kultura bat dago, mundua ikusteko modu bat, amestu, komunikatu, maitatu eta adierazteko molde berezia eta ordezkazetza. Desberdintasunak desberdintasun, berezko komunitatea osatzen dute hiztunek, normalean ohartu gabe. Askoz ere garbiago ikusten da hori hiztun horiek munduko beste puntan topo egiten dutenean.

Askotan euskaldunok gure hizkuntza kultura batekin eta komunitate batekin lotzeaz beldur garela ematen du, eta bitartean euskara karteletan ere ikusi ezin duten horiek ez dute horrenbeste zalantzarik, eta ikasturte honetan euskara guztiz biluzteari ekin diote.

MUSIKA

- Atarrabia: Frank-T eta SFDK hip hop taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, 20:00etatik aurrera, Udaletxe plazan.
- Mutiloabeiti: Etsaiak, Txapel-punk, Marea, El Ultimo Ke Zierre, Zirrosis eta Envidia Kotxina taldeek lehen Ilargi Rock jaialdian joko dute bihar, 21:30etik aurrera, ikastetxe publikoan.

ANTZERKIA

- Barañain: Ados taldeak *Gus eta Gas* antzezlanaren taularatuko du asteazkenean, 18:00etan, udaletxe erabilera anitzeko aretoan.

ZINEMA

- Bera: Bidasoako Film Laburren 4. Zinemaldiko sariak bihar banatuko dituzte, Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. Lamixine antzerki taldeak ekitaldia animatuko du, eta bertan izanen dira filmetako zuzendari, aktore, produktore eta bertzelako jende ezaguna.

IKASTAROAK

- Eskalada: Nafarroako Goi Mendi Eskolak (Paulino Caballero, 13) eskalada ikastaroa antolatu du hilaren 29 eta 30 eta urriaren 6 eta 7 egunetarako. Gaur da izena emateko azken eguna, 19:30etik 21:00etara.
- Sendabelarrak: EHNE sindikatuek sendabelarrei, landare usaintsuei eta nekazaritzako ekologikoari buruzko ikastaroak antolatu ditu. Izena emateko deitu 948-254841 telefonora (Aritza).
- Zizur Nagusia: Gaur bukatuko da Kultur Patronatuak antolatu ikastaro guztien izena emateko epea.
- Atarrabia: Aisialdi sortzailerako ikastaroetan eta haur ikastaroetan kultur etxean izena emateko epea hilaren 28an akituko da.

ko epea hilaren 28an akituko da.

- Iruñea: Euskarazko Sormen Tailerretan matrikulatzeko epea hilaren 24tik 28ra zabalik da. Izena arratsaldean eman behar da, Gazteriaren Etxean.
- Iruñea: Txantreako Auzotegik antolatu ikastaroetan hilaren 28a baino lehen eman behar da izena.

ERAKUSKETAK

- Bera: *Baztango txokoak urte sasoi ezberdinetan*, Joxe Erregere-na eta Juan Lameriñas argazkilarien eskutik, hilaren 29a arte,

astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

- Zizur Nagusia: Gerardo Lorak prestaturiko Erdi Aroko gerra makinaren erakusketa urriaren 7a arte izanen da, Kultur Etxean.

LEHIAKETAK

- Iruñea: Iruñeko Udalaren Egile Berrientzako XVI. Literatur Lehiaketarako lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira. Lehiaketak lau sail ditu: olerkia, narrazio laburra, bertso-papera eta komikia. Argibideak, 948-222008 telefonoan edo tura@ayto-pamplona.es helbide elektronikoa.

BESTELAKOAK

- Lodosa: Iganderako, Nafarroa Oinez-ek traineru estropadak antolatu ditu, Ebro ibaian.
- Auritz: Azienda feria eginen dute igandean, 09:00etatik 14:00etara eta 17:30ean, afizionatuen pilota partidak, frontoian.
- Lodosa-Sartaguda: Urriaren 21eko Nafarroa Oinez bestan laguntzeko 2.500 lagun behar dituzte. Prest baldin bazaude, deitu 669-552096 (Joxean) telefonora.

JOXE LACALLE



Itxoiten

«Amari itxoiten»; aspaldi jan zuten zizareek honen ama. «Aitak besoetan har nazar»; berdin aitarekin. «Lehen eskola egunari»; ez zen eskolara joan, baina estudiantzen segitzen du. «Titiak noiz haziko»; zera... ez. «Etsaminari»; gizonak ez du oraino unibertsitatean izena eman. «Lana noiz lortuko»; erre-tiro saria noiz igoko zain, egiaren errateko. «Norbaiti»; bai, nobaiten esperoan da, baina noren esperoan? «Berak nire denbora bete dezan»; gizajoari hirugarren emazteak ihes egin zion iragan mendean. «Haurra noiz jaioko»; Viagrak ez du horrenbesterako ematen. «Umea noiz kozkortuko»; haurrak Franco hil aurretik egin zuen soldadutza. «Bera nire bila noiz etorriko»; bera bai, baina nor? «Seme-alaben bisitaldiari»; ilobak ditu nahiago. «Liberazioari itxoiten»; libratuko ote da inoiz zain egoteaz?